

33. zenbakia / 2021eko abendua

Leizako
aldizkaria

Marmari



- Herriko curriculuma
- Leizako ingurutxo
- Leitzaketa
- eta gehiago...



Denontzako herri bat

Kultura, inklusioa, herriaren ezagutza... denontzako herri bat eraikitzeko

zenbaki honetan:



3. or. Aurkezpena

4-6. or.
Herriko curriculuma

7. or. Leitzaketa

8-9. or. Zenbat euskara
entzuten da Leitzako
kaleetan?

10-14. or.
Denontzako herri bat

15-19. or.
Leitzako ingurutxo

20-22. or.
Leitzako kultur teknikaria

23-25. or.
Jaiok heriotza zor

26-27. or. hezikTe

28. or. Leitzaketa



Marmariren 33. zenbakian, besteak beste, inklusioa, kultura eta herriaren ezagutza lantzen duten egitasmo edo ekimen batzuen berri jaso dugu: LHL erronka, kultur teknikari lanpostuaren sorrera, herriko curriculum eta Leitzaketa egitasmoa...

Oso ezaugarri eta itxura ezberdineko egitasmoak dira horiek denak, eragile ezberdinek sustatuak eta gauzatuak, baina badituzte ezaugarri komun batzuk: guztiek ere herri bizi baten alde egiten dute, elkarlana eta elkar ezagutza bilatzen dute eta herri ireki bat eraiki nahi dute, denontzako izanen den Leitzaketa, hain zuzen ere.

Hasierako paragrafoan aipatutako lau ekimen horiek berriak dira, 2020. eta 2021. urtean abiatutakoak baitira. Baina, aldi berean, denek dute aurrekariren bat,

ez dira hutsetik abiatzen. Leitzaketa jokoak du ziur asko aurrekaririk argiena, duela 20 bat urte sortu baitzen izen bereko mahai-jokoa. Haren bertsio eguneratua eta berriua da aurtengoa, teknologia berrietara egokituta.

Herriko curriculum ere egitasmo berria da, baina herriko ezagutza transmititzeko asmoa eta gogoia ez da oraingoa, aspaldikoa baizik. Eta LHLren helburu garrantzitsu hori, alegia, Leitzaketa denontzako herri bat izatea, lehendik ere bazebilen hainbaten gogoan eta orain, zorronez, indar handiz gorpuztu da egitasmo bikain batean.

Kultur teknikariaren lanpostuari dagokionez, eta artikuluak dioen bezala, Leitzako kultur jarduera aberats eta sendoari beste bultzada bat emanen zaio,

bereziki Herri Aretoaren kudeaketaren bitartez. Lanpostu berria da, baita Herri Aretoaren eraikina ere, eta biek ere aurretik heldu den dinamikari bultzada sendoa emanen diote.

Baditu bestelako atal batzuk 33. Marmari honek: ingurutzaren inguruko bata –hori ere, jakina, kulturarekin bete-betean lotua-; euskararekin lotutakoa beste bat –kale neurketen emaitza azaltzen duena-; eta kolaborazio bat, ezin saihestuzko gai bat dakarkiguna: heriotza, hain zuzen ere.

Osagai horiekin guztiekin osatu dugu Marmariren zenbaki hau, espero dugu zure gustukoa izanen dela eta aurkituko duzula bertan gogoetarako nahikoa gai, baita, agian, egitasmo horietan laguntzeko bultzada ere.



Herriko curriculuma

Herri bizia da Leitza gaur egun, ez dago esan beharrik. Eta hala izaten jarrai dezan nahi dugu denok, hori ere bistakoa da. Bizitasun hori, ordea, landu egin behar da, ez baita berez eta besterik gabe gertatzen den zerbait. Ahalgin handia eskatzen digu herriko bizitasunari eusteak, eta era guztietako ekimenak abiatzea.

Artikulu honetan azalduko dugun egitasmoa horrekin guztiarekin lotuta dago, eta abiapuntuan gogoeta bat dauka: herria bizirik mantentzeko ahaleginak herritarren inplikazioa eta parte-hartzea eskatzen du, eta herritarren inplikazioa eta parte-hartzea herriarekiko atxikimendutik etorriko da.

Eta nola landu eta suspertu herriarekiko atxikimendua? Bada, eta besteak beste, ezagutzatik. Ezagutu dezagun gure herria, ezagutu dezagun Leitza. Ezagutza horrek, egitasmo honen bul-

tzatzaileen ustez behintzat, onura eta ondorio interesgarri ugari izan ditzake, eta herriarekiko lotura eta atxikimendua indartzea da horietako bat.

CURRICULUMA: IDEIAREN AZALPENEA

Leitza ezagutzeaz ari gara, Leitzari buruzko ezagutza biltzeaz, ordenatzeaz, antolatzeaz, eta denon eskura jartzeaz. Proiektu horri *Leitzako curriculuma* izena jarri zaio, eta datozen lerrootan azalduko dugu.

Garai batean herriari buruzko ezagutza oso modu naturalean transmititzen zen: etxean eta kalean. Baita, neurri batean behintzat, eskolan ere. Eta kanpotik iristen zen informazioa eta ezagutza murriztagoa izaten zenez, bertakoak ziur asko espazio handiagoa izanen zuen.

Gaur egun gauzak asko aldatu dira, ordea, eta hedabideetatik nahiz sare sozialetatik iristen zaigun informazio oldea ikaragarria da. Lehen baino zailagoa da, uholde horren barruan, bertako informazioa eta ezagutzea azalartzea eta horrentzat espazioa bilatzea. Jan egiten gaitu informazioak eta, zehazki, jan egiten zaigu kanpotik iristen zaigun informazioak. Anabasa horretan bertakoaren ezagutza ziurtatzea zailagoa da.

Bertako ezagutzaren transmisioa egiteko ohiko bideek huts egin edo aldatu diren neurrian, bitartekoak sortu behar dira ezagutza hori bermatzen saiatzeko. Eta hor sartzen da curriculumaren proiektua: bide bat eta baliabide bat osatu nahi da, Leitzari buruzko ezagutza landuko dela eta zabalduko dela bermatzeko.

Egitasmo honek, jakina, helburu batzuk dauzka. Besteak beste, honakoak:

- Herriaren nortasuna eta identitatea indartzea.
- Herriko kohesioa eta herritarren arteko harremanak sustatzea.
- Leitzari buruz “jakin beharko genukeena” zer den zehaztea eta antolatzea.
- Herriari buruzko ezagutza zabaltzea.
- Euskarari eta euskal kulturari buruzko ezagutza zabaltzea.

AUZOLANA

Helburu horiek betetzeko bide edo prozedura zehatz bat planteatu behar da, dena asmo hutsean geldituko ez bada. 2021eko uztailaren hasieran egin zen egitasmoaren aurkezpena, eta bertan azaldu ziren aurreikusitako urratsak eta prozedura.

Egitasmoa bera, eta hala azaldu zen aurkezpenean, auzolan handi bat izanen da. Alegia, jende askoren parte-hartzearen bitartez osatuko da, eta guztiz irekia dago parte hartu nahi duen edonorentzat. Lan handia eskatuko du, hori badaki horretan lanean ari den lantaldeak, baita denbora ere. Poliki joanen den proiektua da, lanketa sakona eta denbora eskatuko duena, baina abiatuta dago eta arian-arian osatuz joateko asmo sendoa dago.

Proiektuaren bukaeran, gauzak ongi joanez gero, herritarren eta herriko eragileen eskura Leitzari buruzko ezagutza biltzen duten euskarriak egonen dira. Alegia, bildutako eta antolatutako informazio hori, erabiltzeko moduan utziko da denon esku. Zein euskarritan izanen den erabakitze dago, baina izan litezke unitate didaktikoak, aldizkariak, eskuorriak, podcastak, liburua... Hori aurrerago erabakiko da, bidea egin ahal argiago eta errazago ikusiko baita zein den formularik egokiena.

Bukaerara begira jarri gara baina, noski, hasierari ere begiratu behar diogu. Proiektu honen hasieran, euskara zerbitzuak eta Udalak bultzatuta, curri-



Herriko curriculuma proiektuaren aurkezpena.

culumaren ideia landuko duen lantalde bat osatu zen. Lantalde hori bera izan da Leitzaketa proiektua ere landu eta osatu duena. Lantaldeak egitasmoari forma eman eta lan egiteko prozedura bat adostu zuen, eta prozedura hori da uztailan egindako aurkezpenean herritarrei eta eragileei azaldu zitzaiena. Urrats batzuk eta metodologia bat, proiektua bera aurrera ateratzeko.

Urratsak, labur-labur azalduta, honakoak dira:

1. Leitzako Curriculuma osatuko duten eremuak eta gaiak hautatu. Leitzari buruzko ezagutzaz ari garenean, zertaz ari gara? Bada, hori izan da lehendabiziko urratsa, zer biltzen saiatuko garen zehaztea: kirola, kultura, historia, natura, ohiturak, estatistikak, industria, lanbideak, nekazaritza eta abeltzaintza, festak, biztanleria... Zerrenda luzea osatu da, gai horiekin eta beste hamaikarekin. Lantaldeak egin du hasierako hautaketa hori baina, jakina, zerrenda irekita dago eta ekarpenak jaso ahala osatuz eta zuzenduz joanen da.
2. Hasierako bibliografia eta iturriak identifikatu: hori ere lantaldeak egindako hasierako urrats bat izan da. Hautatutako gaien inguruan, eta lan-

taldearen ezagutzak ematen duen neurrian, hasierako bibliografiatxo bat osatu da. Hori ere, jakina, osatuz eta egokituz joanen da ekarpenak jasoa ahala.

3. Adituen eta arituen ekarpena: hautatutako gai bakoitzeko, herriko aditu edo arituen bati ekarpena eskatu zaio. Lehendabiziko une horretan, gai jakin horri buruzko ekarpen bat eskatu zaie, zehazki: hauta ditzatela gai horri buruz jakin beharko genituzkeen oinarriko ideiak edo elementuak. Haien ustez lehentasunezkoak diren ideiak edo elementuak hauta ditzaten eskatu zaie, hain zuzen ere. Eta, horrekin batera, hain lehentasunezkoak izan gabe ere, interesgarriak eta jakingarriak izan litezkeenak.

Une honetan proiektua prozesuko fase horretan dago. Hainbat herritarren edo eragileren ekarpenak jaso dira, eta horiek ordenatzeko eta antolatze momentua da. Jaso dena zer den ikusi, jaso ez dena eta falta dena zer den, eta jaso denarekin eta falta denarekin zer egin behar den eta nola egin behar den.

4. Curriculumerako gaien ponderazioa: eragileen, adituen eta arituen artean jasotako ideia guztiak mahai gainean jarri eta horiek osatu ondoren, horre-



Leitza eta leitzarrak izanen dira curriculumean protagonista.

Arg.: Gerardo Zaragueta Zabala. Nafarroako Museoko bilduma. Iruñea

kin guztiarekin curriculumaren hezurdura osatuko da. Erabaki beharko da zein izanen diren curriculumean sartuko eta txertatuko diren edukiak, eta horretan guztian oreka bilatu beharko da.

5. Erredakzioa: curriculumaren hezurdura eta edukia zein izanen den era-

baki ondoren, erredakzioa osatzeko lana etorriko da. Alegia, hautatutako gai, ideia eta elementu bakoitzari buruz zerbait idatzi eta testuak edo bestelako euskarriak osatzeko garaia. Hori ere auzolan ariketa bat izanen da.

Garrantzitsua izanen da, lan horretan, idatzitakoari eta sortuko diren

euskarriei neurria ongi hartzea. Testu ulergarriak egitea, praktikoak eta eraginkorrak. Erabiltzeko moduko euskarriak sortu beharko dira, informazio argia eta zehatza emanen dutenak, eta neurri batetik aurrera sakondu nahi duenarentzat bibliografia eta bestelako iturriak eskainiko dituztenak.

Esan bezala, egitasmo sakona da herriko curriculum osatzea, eta lan asko eta denbora eskatuko du. Egitasmoak aurrera egin ahala, ziur asko, prozeduran eta urratsetan egokitzapenak egin beharko dira. Proiektu irekia da, denon ekarpena estimatua izanen da eta, beraz, irakurle hori, bertan parte hartzeko gogoia eta interesa izanez gero, jakin ezazu ate guztiak irekita daudela.

Herrian hamaika aldiz egin izan diren auzolanek bezalaxe, ea honek ere herriarentzat ekarpen interesgarri eta erabilgarri bat eskaintzeko modua lortzen duen.

PROZESUA



Leitzaketa

Leitzari buruzko ezagutza lantzen da Leitzaketa jokoan.

Duela 20 urte inguru Leitzaketa izeneko mahai-jokoa sortu zuten Leitzako euskara zerbitzuak eta kultur taldeak. Leitzari buruzko 1.000 galderarekin osatutako jokoa, entretenigarria eta, aldi berean, herria ezagutzeko baliabide ederra. 20 urte igaro ondoren, mahai-joko haren bertsio berritua eta eguneratua egin da eta dagoeneko denon eskura dago, galdera berriekin eta eguneratuekin.

Lehendabiziko hura mahai-joko fisikoa zen, ohiko formatuan egina: taula, kuboak, fitxak, dadoak eta galdera-erantzunak fitxatan. Oraingoan, berriz, jokoa gaurko teknologia eta gailu berrietara egokituta etorri da, eta jokatzeko bi modu izanen ditugu:

- **Mahai-jokoa:** ohiko joko-aula dugu, dagozkion kubo, fitxa eta dadoarekin. Galdera-erantzunak, ordea, fitxatan egon beharrean, www.leitzaketa.eus webgunean izanen ditugu. Webgunean sartu eta “mahai-jokoa” dioen tokian sakatuta, hortxe izanen ditugu galderak eta erantzunak, esku-eskura, partida elkarrekin jokatzeko.
- **Gailu bidezko jokoa:** jokatzeko beste aukera bat da, bakarka nahiz taldean. Telefonoaren, tabletaren edo ordenagailuaren bitartez jokatuko dugu, horretarako www.leitzaketa.eus webgunean sartuta. Webguneak berak bi aukera emanen dizkigu: “partida sortu” edo “saioa hasi”.
 - **“Partida sortu”** aukeraren bitartez, erregistratu gabe joka dezakegu. Urratsak errazak dira: aurrena, par-



Leitzaketa lantzen, auzolanean, 1999. urtean.

tidari izena emanen diogu; ondoren, bukaera-epea jarriko diogu, eguna eta ordua zehaztuz; eta, bukatzeko, nahi dugun galdera kopurua aukeratu dugu. Partida jokatzen dutenek, guk aukeratu dugun epe hori izanen dute jokatzeko.

Partida bakarka joka dezakegu edo, nahi izanez gero, norbait jokatzeraz gonbidatu. Hala egin nahi badugu, partida sortzen dugunean webguneak erakusten digun esteka kopia eta lagunei bidali behar zaie, besterik ez. Whatsapp-en ikonoa ere erabil dezakegu errazago partekatzeko. Partida hori jokatzeko aukera izanen dute denek, guk aukeratu tako epea bukatu arte. Leitzaketak sailkapen bat sortuko du partida bakoitzeko, eta sailkapen horretan, gutako bakoitzak partida jokatzeko aukeratu dugun izena agertuko da.

- **“Saioa hasi”:** saioa hasi eta “nire txokoa” gunea sortzeko, erregistratu egin behar dugu, izena emanaz, ohiko moduan. Behin erregistratuta, “nire txokoa” izeneko gunera zuzenean sartzeko aukera izanen dugu,

eta hortik beste jokalarri batzuekin Leitzaketako taldeak osa ditzakegu, kideen arteko partidak noiznahi jokatzeko, baita partida horiekin guztiekin sailkapen orokor bat edo “liga” moduko bat egiteko ere. Atal horretan sartuta, taldeak sortzeko eta taldeak editatzeko aukera izanen dugu.

- **Leitzaketan errazago aritzeko,** bestalde, aldiro www.leitzaketa.eus webgunea joan eta sartzen ibili gabe, jokoa ikonoa edo ikurra zure telefonoan edo gailuan jar dezakezu. Hartara, edozein aplikazio bezala zure pantailan eskura edukiko duzu eta jokoa erraz eta eroso sartzeko zara. www.leitzaketa.eus webgunean sartzen zarenean, horretarako aukera emanen dizu.

Hortxe duzu, bada, eskura eta eroso ibiltzeko moduan, bakarka edo lagunekin entretenitzen lagunduko dizun jokoa eta, bide batez, zure herria hobeki eta sakonago ezagutzen lagunduko dizuna. Goza ezazu!



Zenbat euskara entzuten da Leitzako kaleetan?

Kalean entzuten dena jasotzen du neurketak.

Zenbat euskara entzuten da Leitzako kaleetan? Nori galdetzen diozun, erantzuna bata edo bestea izanen da. Eta erantzunen artean alde handiak izanen dira ziur asko. Batek esanen dizu hemen ia dena euskaraz egiten dela, alegia, % 90aren bueltan gabiltzala, baina izanen da doi-doi % 50era iristen garela esaten dizuna ere. Iritzi subjektiboak izaten dira horiek denak, normala den bezala, jaso edo entzuten dugun hori norberaren iragazki pertsonaletik pasatzen baita gero, eta norberak dituen aurreiritziak, usteak eta desirak ere, askotan, badutelako zerikusia.

Leitzako kaleetan zenbat euskara entzuten den ziur samar jakiteko modurik onena, beraz, neurketa objektibo bat egitea da. Alegia, kalera atera, belarriak

erne, eta entzuten dena jaso. Ez bost minututan gure etxe inguruan edo plazan harrapatzen ditugun horien elkarrizketak entzunda, baizik eta zenbait ordutan eta herriko kale ezberdinetan entzuten ditugun elkarrizketa guztiak entzunda. Eta, balio estatistikoa izan dezaten, neuritutako elkarrizketa kopuruak gutxieneko kopuru bat gainditu behar du.

Bada, horixe da Euskal Herrian bost urtean behin egiten den kale neurketak egiten duena: metodologia zorrotz batekin kalera atera, eta bertan entzuten dena jaso. Ez bertan entzun nahiko genukeena, baizik eta benetan entzuten dena. Eta kalean dabilzanezi ez zaie galdetzen zein hizkuntza erabiltzen duten, euskaraz edo gaztelaniaz egiten duten, edo beste hizkuntzaren batean. Momen-

tu horretan erabiltzen ari diren hizkuntza zein den jasotzen da, eta gero hortik emaitza jakin bat ateratzen da. Jaso dugun emaitza hori gure gustukoa izanen da edo ez, baina ordu horietan guztietan jaso den errealitatea biltzen du neurketaren emaitzak.

Soziolinguistka klusterrak egiten duen neurketa hori Euskal Herriko hainbat hiri eta herritan egiten da, baita Leitzan ere. Gurean, UEMAREN bitartez bideratuta. Eta horrek argazki zehatz bat erakusten digu. Artikulu honetan 2021. urtean Leitzan egindako neurketaren emaitza azalduko dugu.

2021EKO KALE NEURKETA

2021eko udaberrian egin da Leitzako azkeneko neurketa, sei egun ezberdine-

tan eta ordutegi ezberdinetan. 455 elkarrizketa jaso ziren, eta 1.375 solaskide. Akats tarteak $\pm 4,2$ koa zen, % 95eko konfiantza mailarekin.


Neurketak egiteko erabiltzen den metodologia horretan adinaren aldagaia ere aztertu da. Alegia, Leitzako kaleetan oro har zenbat euskara entzuten den jasotzeaz gainera, euskara gehien zein adin taldek erabiltzen duen ere begiratu da, eta bost talde bereizi dira: haurrak (0-14 urte), gazteak (15-24 urte), heldu gazteak (25-39 urte), heldu nagusiak (40-64 urte), edo 65 urtetik gorakoak.

2021eko neurketan jasotakoaren arabera, 10 herritarretatik 7 inguru dira Leitzan kalean euskaraz aritzen direnak, eta 10etik 3 inguru gaztelaniaz aritzen direnak. Hau ez da izan, nolahi ere, Leitzan egin den lehendabiziko kale neurketa, eta 90. hamarkadan lehendabizikoak egin zirenetik, esan liteke euskararen erabilera proportzio bertsuan mantentzen dela: normalean eta batez beste, % 70aren bueltan. Izan dira emaitza baxuagoa edo altuagoa eman duten urteak, baina batez bestekoa horixe da.


NEURKETAREN EMAITZA OROKORRA ETA EMAITZA ZEHATZAK

2021eko kale neurketa egin zen egun eta orduetan, Leitzako kaleetan entzundako elkarrizketen artean, % 68,5 euskarazkoa izan zen.

EMAITZA OROKORRA



EMAITZA ADIN-TALDEKA



Haurrak dira, neurketaren arabera, euskaraz gehien egiten dutenak.

Adin-taldeak kontuan hartuta, alde nabarmena dago batzuen eta besteen artean. Haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (% 90etik gora) eta gazteak ondoren (% 82tik gora). Heldu gazteen erabilera-indizea batez bestekoaren oso antzekoa da (% 71), eta heldu nagusiak eta % 65 urtetik gorakoak dira, alde handiz, euskara gutxien erabiltzen dutenak.

Ikusten denez, beraz, eta ez da uste-kabekoa, euskara asko entzuten da Leitzako kaleetan, baina gaztelaniaren presentzia ere indartsua da, jasotako 10 elkarrizketetatik 3 hizkuntza horretan jaso baitira. Leitzan populazioaren % 85 inguru da gaur egun euskalduna. Populazioaren % 15 inguru erdalduna dela kontuan izanda, beraz, eta hori toki guz-

tietan gertatzen da, ezin da espero erabilera-ehunekoa ezagutzarena baino altuagoa izatea, matematikoki eta estatistikoki ezinezkoa baita.

Erabilera-indizea % 70aren bueltan ibiltzea, beraz, ez da harrizkoa, eta erabilera indize altua dela esan liteke. Horrek ez du ezkututzen, hala ere, gurean ere bistakoa den errealitate bat: euskaldunen artean ere, eta tartean erdaldunik izan gabe, badago gaztelaniaz egiteko ohitura edo joera.

Euskararen kaleko erabilera-nerketa honek erakusten digu Leitzan herri euskalduna dela, eta euskara oso bizirik dagoela. Eta pozgarria da, jakina, euskaltzaleon ikuspegitik. Baina egia da, bestalde, azken urteotan herri euskaldun askotan gertatzen ari den bezalaxe, euskararen erabilera dagokionez kezka sortzen ari dela, zenbait egoeratan eta zenbait espaziotan gaztelaniaren erabilera ere indartzen ari ote den, baita euskara gehien egiten duten adin-taldeetan ere, haur eta gazteen artean alegia.

Neurketako datuak objektibotzat jo ditzakegu, eta errealitate euskaldun bat erakusten digute, baina egunerokoan jasotzen ari garen beste zantzu eta inpresio batzuk ere ezin ditugu ahaztu, kontuan izan behar ditugu, eta erne egotera bultzatu behar gaituzte, euskarari eusteko eta euskararentzat espazioak irabazteko lan-gintza eta borroka honetan intentsitateari eutsi behar zaiolako, amore eman gabe.



Denontzako herri bat

LHL erronka, herri inklusibo baten aldeko auzolana

AURKEZPENA

Denontzako herri bat. Alegia, Leitza denontzako herri bat izan dadila, horixe LHL Erronka izeneko ekimenak bilatzen duena. Herritar guztiok partekatzen dugun desira, ziur asko, baina oraindik ere gauzatu gabe dagoena. Badago, beraz, horra iristeko bide bat egin beharra, eta bide hori egiteko auzolana abiatu da Leitza.

Auzolan hori, maiz gertatzen den bezala, norbanako edo talde txiki batetik abiatu zen, eta denbora aurrera joan ahal eta ahalegin kementsu baten ondorioz, herritar eta eragile sare baten ekimen bihurtu da. Iraitz Uriartek eta Iker Go-



Iker eta Iratx Udane eta haren familiarekin, herriko harreran.

mezek kirol erronka bat egiteko zuten grina dago abiapuntuan. Grina hori laster bihurtu zen helburu soziala izanzen zuten erronka, eta, halaber, laster bihurtu zen herriko sei familiaren proiektu. Sei familia horiek, ondoren, Leitzako hainbat herritar eta eragile inplikatzeari lortu zuten eta hortik etorri da auzolan eder hau.

Aipatu behar da, nolana ere, hasierako abiapuntu horrek berak ere badietuela aurrekari jakin batzuk. Sustatzailerak azaldu izan dutenez, bertako bi ekimen izan ziren ideia honen aurrekariak: eskualdean dagoeneko zazpi aldiz egin den Euskal Herria Mendi Erronka alde batetik, eta Leitzako Amazabal Institutuak eta Erleta eskolak egindako Urratsez Urrats ekimena, bestetik. Bi ekimen indartsu horiek ere ideia eta auzolan honen pizgarri eta eredu izan ziren.

Leitza herri inklusiboagoa bilakatze-ko erronka horri LHL erronka jarri zioten



izena antolatzaileek, egin duten ibilbide honetako jarduerarik sonatuena –baina ez bakarrik–, Lintzan hasi, Hiru Erregeen Mahaitik pasa eta Leitza bukatutako kirol erronka izan zelako. Hortik LHL izena. Kirol kutsu handiko jarduera izan zen, jakina, baina kirolaz gainera, elkartasuna eta auzolana ere erronkaren osagai ezinbestekoak izan ziren.

Erronka antolatzen eta gorpuzten hasi zirenean Leitzako familia bat etorri

zitzaien gogora, Udaneren familia hain zuzen ere. Munduan bost kasu baino ez dituen gaixotasuna du, eta horrek zailtasun ugari eragiten ditu. Eskolan hasia da Udane, esate baterako, gorpil-aulkian egin behar izaten ditu joan-etorriak, eta agerian gelditzen da Leitza ez dagoela egokituta bestelako mugikortasun eta errealitateak dituzten pertsonentzat.

Hasierako ideia, beraz, Udaneren familiari laguntzea izan zen, horretarako diru bilketa bat eginda. Familia bera izan zen, ordea, proiektuari beste norabide eta ikuspegi bat ematea proposatu zuena: pertsona bakar bati begira jarri beharrean, herri osoaren onurari begiratzea. Hartara, behar bereziak dituzten guztiei bizitza errazteko ekarpen bat eginen zen eta, horrekin batera, herritarren sentsibilizazioa areagotzeko lan egin.

LHL erronka ekimenaren aurkezpena eta hainbat jakingarri <https://www.>



Kemen Elkartekoekin elkarlana, erronka egunean.

lhl.eus/ helbidean ikusi eta kontsultatu daitezke.

HELBURUAK

Auzolan garrantzitsu honek, jakina, helburu batzuk dauzka. Helburu horiek dira, hain zuzen ere, antolatzaileak, parte-hartzaileak, laguntzaileak eta herritarrak oro har ekimena babestera eta bultzatzera eraman dituztenak. Artikulu honen sarreran zertxobait esan dugu helburu horretaz, datozen lerrootan pixka bat gehiago zehaztuko dugu.

Proiektuaren webguneak berak argitzen digu helburua zein den, “Zer nahi dugu?” galderari erantzunda. Eta erantzuna, laburra bezain argia, hauxe da, hitzez hitz: “Denontzako herria eraiki nahi dugu”. Eta atal horretan bertan, esaldi indartsu eta esanguratsu bat: “Mundu justuagoa eraikitzeko bidean gako garrantzitsua dugu”. Izan ere, justizia kontu batez ari dira, mundua justua izanen bada, eta gure herria bera ere hala izanen bada, denontzako izan behar duelako.

Auzolan honen guztiaren helburua, horrenbestez, Leitza herri inklusiboagoa bilakatzea da. Denok eskubide berak izan beharko genituzke eta, ondorioz,

eskubide horiek gauzatzeko batzuek dituzten oztopoak gainditu eta ezabatu egin behar dira. Eta ez gara esaldi hutsez hitz egiten ari, oztopo horiek zehatzak eta ukigarriak dira eta konponbideak ere zehatzak eta praktikoak izan daitezke. Aurrerago aipatuko ditugu horietako batzuk, baina zertaz ari garen uler dadin, adibidex bat jarriko dugu: gaur egun, plazan, adokinek sortzen duten zailtasuna gainditzeko, adokinik gabeko bide bat ireki da inork ez dezan arazorik izan plazara iritsi eta bertan egoteko edo bertan egiten diren ekintzetan parte hartzeko. Oztopo zehatz bat, eta irtenbide zehatz bat. Auzolanaren helburu orokorrenekin bete-betean lotuta.

Ekimen honen beste helburu bat herritarrak sentsibilizatzea eta kontzientziazatzea da. Eta horretarako, besteak beste, ikusezina ikusgai bihurtzea. Helburu garrantzitsua, inondik ere, kontzientziazio horrek ekarriko baitu arazo eta oztopoez hobeki jabetzea eta horiek gainditzeko borondatea izatea.

ZER DA KONPONDU BEHAR DENA

Leitza herri inklusiboa izan dadin gauza asko egin liteke, eta egin beharra da-

go. Eta egin litekeen hori guztia ez da oraindik jasota egonen, ziur asko. Lan hori egiten ari dira LHL erronkako kideak, hain zuzen ere, beste zenbait eragilerekin batera, eta herritarren sentsibilizazioak eta kontzientziazioak ikusaraziko ditu han eta hemen egon litekeen oztopoak. Baina ekimen honek aipatu eta erakutsi dizkigu dagoeneko inklusiorako oztopo diren horietako batzuk.

Herri inklusiboago bat eraikitzeko ideia, ekarpen eta proposamenekin ongi hornitutako zerrenda osatzen ari dira LHL Erronkako kideak herriko eragileekin batera, aurrerago azalduko dugun moduan. Egon badauden oztopoak zein diren ikus dezakegu horren bitartez, baita horiek gainditzeko egon litekeen irtenbideak ere. Honatx zerrenda horretan jasotako hainbat aukera:

Plazatik osasun etxera bitarteko bide segurua eta egokitua egitea; jolas-parkeetan egokitzenak egitea; pasealekuan eserlekuak jartzea; banketxeetako sarbideak egokitzea; edukiontzi berriak erostean, egokituak izan daitezela; Plazaolako naturbidea egokitzea; Leitza herri igerilekuan uretara sartzeko



Herriko haurrak LHLK deitutako margotze-azolanean.

ranpa jartzea; espaloietan ez aparkatze-ko sentsibilizazio-kanpaina egitea; ikusmen arazoak dituztenentzako egokitza-penak egitea (soinu/ukimen elementuak); udaletxeko bulegoetan piktogramak jartzea; laguntza ortoprotesikoa erostea, maileguan eskaintzeko; aniztasun funtzionala dutenentzako aparkaleku gehiago jartzea; aparkalekuak margotzea; Plazaolako geltokian komunak jartzea; komertzio eta establezimenduetako piktogramak; Pabilioietan eserlekuak eta estalpea jartzea; Erasoten eserlekuak jartzea; aniztasun funtzionala dutenentzako mapa eta App-a sortzea; zebra-bideetan autismoa dutenentzako ikurrak egitea eta ikusmen urritasuna dutenentzako baldosak jartzea; alde zaharrea ibilbide egokitua prestatzen hastea; Herri Aretoko ohol-tza aniztasun funtzionala dutenentzako eskuragarri jartzea; plazako ekitaldietan bidexka libre utzi eta toki erreserbatuak gordetzea; osasun etxera igotzeko barandilla jartzea...

EGINDAKO BIDEA ETA EKARPENA

Ideia bat, proiektu bat, auzolana... Hori guztia, jakina, urrats zehatzetan gauzatu da, eta LHL erronkak, hasi bai baina bukatu ez den bere ibilbide ho-

rretan, hainbat ekintza egin ditu.

Denetan sonatuena, zalantzarik gabe, Lintza-Hiru Erregeen Mahaia-Leitza kirol erronka izan zen. Herrian bertan oihartzun oso handia izan zuen, baina Leitziatik kanpo ere asko zabaldu zen haren berri eta pertsona ezagun askok eman zioten babesaz gainera hedabideetan ere albiste bihurtu zen.

Kirol erronka izan zen, baina, lehen esan dugun moduan, baita elkartasun ariketa eta auzolan handia ere. Lintzan abiatu zen ekimena, ekainaren 25ean, eta Leitzaoko plazan bukatu zen, biharamunean. 150 bat kilometroko ibilbidea, 6.000 metroko desnibel positiboa, eta guztira 24 ordu baino gehiago korrika.

Ibilbide osoa Leitzaoko bi mendi lasterkerik egin zuten, Iraitz Uriartek eta Iker Gomezek, baina bidean zehar makina bat lagun izan zituzten hauspoa ematen, bultzatzen eta behar zen guztian laguntzen. Aipatzeko modukoa da, esate baterako, Kemen elkartearen parte-hartzea. Kemen pertsona ezinduen kirol elkarte da, eta egun horretan hainbat leitzar eta lagunekin batera kirol erronkan parte hartu zuten, beren aulki bereziek lagunduta. Bertan izan zen Gorka Zubeldia ere, hanka bakarra izanda protesi batekin Mont Blanc-eko 100

kilometroko zirkuitua osatu zuen lasterkaria.

Kirol erronka latza, beraz, ikusgarritasun ikaragarria lortu zuena eta LHL erronkaren helburuak lortzen asko lagundu zuena: inklusioaren gaia ikusaraztea eta horren inguruan sentsibilizaztea, eta urrats zehatzak emateko diru bilketa egitea, besteak beste.

Kirol erronkaz gainera, LHL erronkak beste urrats batzuk ere egin ditu, egiten ari da, edo egin nahi ditu. Hona-koak, esate baterako: herri lan sarea osatu (Udala, Erleta eskola, Amazabal institutua, Okille tailerra, Itzaire haur eskola, Jubilatuen elkarte, Atekabeltz herrigunea eta Kaxkabeltz elkarte); "Goi mailako kirola" hitzaldia; antzerki solidarioa; plazako bidexka, plazako sarbidea edonoren esku uzteko; aparkalekuak margotu; jolas parkea; komertzio eta establezimenduetako piktogramak; murala(k); LHL proiektuaren kanta (musika La Jodedera taldeak sortua eta letrak Joanes Illarregik eta Xabat Illarregik idatziak).

LHL erronka ekimenak, beraz, Leitziari ekarpen ederra egin dio. Herriari, edo herritarroi, betaurreko batzuk jantzi dizkigu, inklusioaren beharraz ohar gaitzean eta, ohartzeaz gainera, inklu-



Plazara bitarteko bidexka egokitua.

sioaren inguruko arazoei irtenbidea bat eman diezaiegun. Herria aktibatu eta sensibilizatu du eta, neurri polit batean behintzat, kontzientzia piztu du.

Horretaz gainera, diru bilketa bat antolatu eta burutu da, eta 23.000 € jaso dira. Emaitza bikaina, zalantzarik gabe, lortutako kontzientziazio horren ispilu. Bilketaren ondoren bildutako dirua inbertitzeko ordua dator, jakina, baina hori erabakiko duena ez da LHL taldea bakarrik izanen, pauso hori herriko eragile

desberdinekin elkarlanean eman nahi baitute: Udaneren familia, gizarte zerbitzuak, Jubilatue Elkarte eta Luis Mari Lezea (bidelagun izan dute prozesu guztian), Okille, herriko ikastetxeak, Udala...

Aurrerago aipatu dugun moduan, horiekin guztiekin harremanetan dago LHL erroka ekimena, herriak dituen beharrianak hobeto detektatzeko. Eragile bakoitzari proposamen zehatzak egiteko eskaera egin zaie, ondoren eragile guztietako ordezkariak elkartu eta ja-

sotako proposamen guztien artean lehentasunak finkatzeko. LHL lan-taldeak ere egin ditu bere proposamenak, eta horretan laguntzeko KEMEN taldekoen laguntza izan dute. Urriari Leitzan izan ziren elkarteko kideak, LHL erroka gonbidatuta, aniztasun funtzionalaren begiradatik herriaren azterketa bat egiteko.

Behin eragile desberdinen ekarpenak jasota, alkatearekin eta aparejadoreekin bildu da lan-taldea azaroan, eragile desberdinek egindako proposamenak ezagutzera emateko eta haien bideragarritasuna aztertzeko. Udala oso prest agertu da elkarlanean hobekuntzak egiten jarraitzeko, eta, puntuaz puntu, eragileek detektatutako beharrak eta eskakarak bien artean aztertu eta banatu dituzte: Udala arduratuko da haietako batzuk aurrera eramateaz, eta LHL lan-taldea beste batzuek. Egun, elkarrekin bidea urratzen jarraitzen dute.

Lan ederra egin du LHL erroka, baina, aurrerago ere esan dugun bezala, abiatu da baina ez da bukatu. Herritarrak eta eragileak kontzientziazio jarraitu behar da. Ikusezina zena ikusgai egiten jarraitu behar da, inklusioaren betaurrekoak erantzi gabe. Aurrerantzean herrian antolatzen diren ekimenetan eta herriar bakoitzaren jokabideetan begirada berri bat izan dezagun. Esate baterako, plazan ekitaldiak antolatzen diren guztietan bidexka libre egon dadila, postuak edo norentzat irisgarri izateko moduan egon daitezela, plazako ikuskizunetan aniztasun funtzionala dutenek tokitxo bat gordea izan dezatela emanaldia ikusi ahal izateko, ez ditzagun autoak behar ez den tokian aparkatuta utzi (espaloietan, zebrabideetan, aniztasuna funtzionala dutenentzako aparkalekuetan, bigarren ilaran...).

Horretan guztian ari da lanean LHL erroka ekimena, guztientzako herria eraikitzen alegia, eta zinez eskertuko dute, zalantzarik gabe, eragile eta herriarren aldetik etorriko den laguntza guztia.



Aurrera eguna. 2016ko urria.

Arg.: Miel mari Elozegi

Leitzako ingurutxoa

Altxor bat gurean

Leitzako ingurutxoa, kanpotik etorritako zenbait adituk gogorarazi behar izan digutenez, benetako altxorra da. Altxorra da, besteak beste, ia inolako etenik gabe eta oso-oso aspalditik gorde den dantza delako, inork berreskuratzeko edo berreraikitzeke lana hartu beharrik izan gabe. 1936ko gerraren ondorioz bizpahiru urtez dantzatu gabe gelditu bazen ere, etenaldi labur-labur hori kenduta Leitzan urte urte ingurutxoa dantzaten jarraitu dugu eta belaunaldiz belaunaldi igaro da orain arte.

Garai hobeak bizi izan ditu ingurutxoak zalantzarik gabe. Ikuskizun gisa edo egun jakin batzuetako ekitaldi gisa dantzaten den egun horietaz gainera, ez oso aspaldi arte ingurutxoa biziago zegoen eta funtzio sozial bat ere jokatzeko zuten, dantzaten zuten horien arteko harremani eusteko edo lotura berriak sortzeko balio baitzuen, besteak beste. Erliijoak eta beste arau sozial batzuek

jendea estuago hartzen zuten garaian, ate moduko bat ere bazen ingurutxoa. Ez da oso adinekoa izan beharrik horren guztiaren oroitzapena izateko, gazteagoek ere badakite hori.

Egia da ezpatadantzak leitzarren artean sentimendu eta emozio indartsuak eragiten dituela, azkeneko urte edo hamarkadotan bereziki, eta ez soilik abuztuaren 11n plazan hura dantzaten dutenen artean, baizik eta baita ikusleen artean ere. Horrek, besteak beste, ezpatadantzaren eta Leitzaren arteko identifikazio indartsu bat sortzea ekarri du. Ezpatadantza, nolana ere, erakustaldi bat da, dantzari trebe eta ongi prestatuek jendearen aurrean egiten dutena, ondoren denok txalotzen duguna. Ingurutxoa berriz, dantzatzeko dantza bat da, ongi

pasatzekoa, gure lagun eta herritarrekin batera plazan egin izan duguna mendez mendez. Gaur egun ikusle asko hurbiltzen da plazara, baina aitortu behar da dantzara ateratzeko pausoa gutxi ematen dutela.

Ezpatadantza aspaldikoa da hemen, 1930. hamarkadan iritsi baitzen Bizkaitik hona, ia 100 urte. Bada, askoz ere zaharragoa da ingurutxoa Leitzan. Ingurutxoak lotura oso estua eta oso aspaldikoa du Leitzako herriarekin. Noizkoa den zehazki ez dakigun arren, gaia ikertu dutenek adierazi dutenez 250 urte atzera eginda ere aurkituko genuke haren arrastoa. Argazki zaharrenak duela 100 urtetik gorakoak dira, baina dantza motagatik, doinu motagatik, eta bes-telako aztarna batzuegatik, adituek



Pestak. 2009ko abuztuaren 12a.

Arg.: Miel mari Elozegi



Bikoteen eta ezkonduen ingurutxoak. 2010ko abuztuaren 15a.

Arg.: Miel mari Elozegi



Bikoteen eta ezkonduen ingurutxoak. 2009ko abuztuaren 15a.

Arg.: Miel mari Elozegi



Aurrera eguna. 2019ko urria.

Arg.: Miel mari Elozegi

badakite gisa horretako dantzak askoz zaharragoak direla.

Denboraren eta bestelako arrazoi batzuen poderioz gure inguruko beste Inгурutxo batzuk desagertu egin ziren eta azken aldiko lana izan da, nolabait esateko, haiek berreskuratzea. Berdin gertatu da beste dantza sonatu batzuekin, Korteko makil-dantzarekin esate baterako. Leitzako ingurutxoak, ordea, ez zen galdu, bizirik eutsi dio mendeen joan-etorri horretan, eta gaur arte bizirik iritsi da. Hori azaltzeko zenbait arrazoi egon litezke, eta horietako bat txistulariak dira. Beste herri txiki batzuetan ez bezala, hemen beti izan dira bertako txistulariak, eta hori, ziur asko, ingurutxoak mantentzeko oso lagungarria gertatu da.

Bizirik mantendu da, beraz, eta hori bera izan liteke, akaso, Leitzako ingurutxoaren inguruan beste ingurutxo batzuen inguruan baino ikerketa gutxiago egin izanaren arrazoia. Izan ere, beste batzuk sakon eta xehe aztertu eta erre-

gistratu diren bezala, gurearekin ez da hala gertatu, eta utzi samarra gelditu da haren inguruko ikerketa. Badago aita Olazaraneke idatzitako liburu bat, *Ingurutxo, danza vasca popular de Leiza*. Leitzara etorri eta txundituta gelditu zen hemengo dantza honekin, eta liburua argitaratu zuen. Eta badira Leitzako ingurutxoari buruzko beste zenbait artikulak eta azterketa, baina gauza ederra litzateke alor honetan gehiago sakontzea.

Badakigu, hala ere, ingurutxo osoena dela gurea. Inguruan ere badaude beste batzuk, Nafarroan bertan, baita Gipuzkoan ere, batzuetan izen ezberdinarekin bada ere, soka-dantza esaterako. Leitzakoak soka-dantza dauka, eta ingurutxoak, bi dantza. Batera egiten ditugu orain, baina jatorriz soka-dantza oso dantza solemnea zen, ekitaldietakoa, eta ingurutxoak dantza sozial bat, igandeetan edo festa egunetan dantzatzeko. Orain dena batera egiten da, eta jota eta porrusalda ere erantsi zaizkio.

Nolanahi ere, eta idatzi honetan ingurutxo oso aspaldikoa dela azpimarratu dugun arren, ziur asko galdera garrantzitsua ez da noizkoa den, noiz arte irautea nahi dugun baizik. Horretan jarri beharko litzateke arreta, horretan egin beharko da ahalegina. Irauteko ahalegin horretan zer urrats eman litezkeen pentsatu beharko da, baina bada, hasteko, erraz egin dezakegun zerbait: urtean zehar hiru edo lau alditan ingurutxoak dantzatzeko aukera dugunean (Sanjuan bezperan, pestetan hiru alditan, Aurrera egunean...), plazara atera lagunekin eta dantza saio polit bat egin, bide batez ongi pasatuz.

Altxor bat da Leitzako ingurutxoak, beraz, zenbait ikuspegitatik begiratuta ere, eta denon artean altxor hori hobeki ikertzeko modua egin beharko genuke. Eta horrekin batera, noski, gaurko bizimodu erdi zoro eta azeleratu honetan, arreta eskaini eta behar bezala zaindu.

Leitzako ingurutxoak

Atal honetan Leitzako Ingurutxoari buruzko argazkiak ikusiko ditugu. Argazkiekin batera Marmariren zenbaki honetan heldu den idatzian ingurutxoak duen garrantzia nabarmentzen saiatu gara, Leitzako ondare berezia delako eta merezi duelako zaindu eta iraunaraztea. Argazkiak ekarri ditugu, beraz, ederrak direlako noski, baina baita gure altxor honen garrantzia irudien laguntzaz ilustratu eta azpimarratu nahi dugulako ere.

Argazkiak Leitzako Ingurutxoazale taldeak antolatutako erakusketa batean jarritakoak dira eta Miel Mari Elozegi "Luze" k egindakoak dira. Hari zor diogu atal honetan horiekin gozatu ahal izatea.



2017ko abuztuaren 12a.



Bikoteen eta ezkonduen ingurutxoak. 2009ko abuztuaren 15a.



Aurrera eguna. 2016ko urriaren 1a.



Pestak. 2007ko abuztuaren 12a.



Pestak. 2014ko abuztuaren 12a.



Aurrera eguna. 2015eko urria.



Aurrera eguna. 2010eko abuztua.



Pestak. 2017ko abuztuaren 12a.



Pestak. 2008ko abuztuaren 12a.





Aurrera eguna. 2016ko urriaren 1a.



Ezkonduen ingurutxoa. 2018ko abuztuaren 15a.



Pestak. 2018ko abuztua.



Aurrera eguna. 2015eko urria.

Leitzako kultur teknikaria

Bultzada bat Leitzako kultur sorkuntzari eta kultur jarduerari

Leitzan azkeneko hamarkadatan kulturaren inguruko jarduera handia izan da: bertako sortzaileen jardueraz gainera, kultura sustatzeko eta kultur jarduerak antolatzeko joera indartsu bat izan da, eta herriko hainbat eragile aritu dira lan horretan: kultur taldea, Leitzako Udala, Aurrera, Atekabeltza herrigunea, Torrea, ikastetxeak, euskara zerbitzua, liburutegia, euskaltegia, gaztetxea, musika eskola, Jeiki abesbatza, ihoterietako taldea, musika taldeak, bertso-eskola, erraldoien konpartsa...

Kulturaren inguruko mugimendu eta dinamika horrek lanean jarraitzen du, eta azken aldian dinamika hori bera indartu eta sendotuko duten bi elementu berri ditugu: Herri Aretoa, alde batetik, eta kultura teknikaria, bestetik. Herri Aretoak urtea egin du dagoeneko martxan, eta horren berri badugu lehenagotik ere. Kultur teknikaria, berriz, 2021eko azaroan hasi da lanean, eta oraintxe ari da lehendabiziko urratsak ematen bere egitekoak antolatu eta gauzatzen hasteko, eta artikulu honetan ho-

rreren berri ematen saiatuko gara, labur bada ere.

Kultur teknikaria Leitzako Udaleko langilea da, Udalak egin baitu hura kontratatzekeo deialdia. Hautapen prozesu baten ondoren, Miren Tirapuk eskuratu du lanpostua, eta bera da lan hori aurrera aterako duena. Udaletxean dauka bulegoa eta hortik ariko da lanean, lanaldi erdian, Udalarekin berarekin eta herriko eragileekin elkarlanean.



Kultur teknikaria da Miren, baina ez da hasi berria kulturaren mundu horretan. Izan ere, antzerkigilea ere bada, hainbat konpainiarekin lan egiten du eta Beheko Larraine konpainia sortu zuen duela urte batzuk. Oholtza gainean ere aritzen da, beraz, eta horrek berak ere indarrez bultzatu du lan berri honetara. Bere bi jardun horietan asmo berdinarekin ariko da: kultura aisialditik harago eramatea, hain zuzen ere. Ilusioz



Kultur teknikariak herriko eragileei egindako aurkezpena.

gainezka hasia da bere zereginetan, eta datozen hilabete eta urteetan nabaritu-ko dugu zalantzarik gabe haren jarduna.

KULTUR TEKNIKARIAREN EGITEKOAK

Kultur teknikariaren lana oso lotuta egonen da Leitzako Herri Aretoarekin. Izan ere, bere ardura nagusia Herri Aretoaren eta bertan antolatzen eta garatzen den programazioaren kudeaketa izanen da. Bere egitekoa ez da Aretoako espazio hutsera mugatuko, eta Aretoari bizia ematea ez da izanen haren ardura esklusiboa izanen, baina ezinbesteko zutabea eta motorra izanen da Herri Aretoa espazio bizia, emankorra, aberatsa eta zabala izan dadin, eta bertako jarduera eta programazioa koordinatua, osagarria eta koherentea izan dadin.

Herri Aretoaren kudeaketa izanen da, beraz, langile berriaren egiteko nagusia. Egitekoak, zehatzago, lanpostua atera zuenean Udalak egindako deialdian jasota daude. Zerrenda luze samarra denez, horietako batzuk ekarri ditugu hona, hitzez hitz deialditik hartuta:

- Ekintza plangintzak proposatu, esleitu zaitziona kultura-espazio edo -azpiegituretarako.
- Ekimen komunitarioko jarduerak kulturguneak berak dituen jarduerekin koordinatu.
- Espazioak eta materialak erabiltzeko eskaerak ebatzi, eta daten eta ordutegien banaketa planifikatu.
- Aurkezten diren jarduera- eta ikusizun-proposamen guztiei harrera egin, horiek bideratu eta, hala badagokio, proposamen horiek Udalarari helarazi.
- Plangintzan jasotako helburuak betetzeko esleitu aurrekontua aplikatu.
- Laguntzak eta dirulaguntzak presatu eta kontrolatu, eta, halaber, horiek behar bezala eta egokiro inbertitzen direla zaindu.
- Kultura-jardueren programazioa proposatu eta programazio hori publiko potentzialari eraginkortasunez eta behar besteko aurrerapenarekin jakinarazi. Horretarako IKTak, hedabideak eta bide horiek erabili: tokiko prentsa eta irratia, web-orriak eta sare sozialak, besteak beste.
- Erabiltzaileen, taldeen eta erakundeen parte-hartzea sustatu.
- Jai eta kultura-ekitaldiekin lotura duten kudeaketak.
- Leitzan herritarren eta gizarte- eta kultura-eragileen artean arte-sorkuntza sustatu eta bultzatu.
- Leitzako turismoko informazio-gunea kudeatu.

ELKARLANA, SAREAK ETA BESTE JAKINGARRI BATZUK

Mirenek herriko eragileekin bilera bat egin zuen azaroaren 24an, eta bertan aurkeztu zuen bere burua, baita bere asmoak azaldu ere. Lehendabiziko urratsak zein izan diren, nola antolatu eta planifikatu duen bere lana, jorratuko dituen zenbait ildo eta ekimen, azpiegituretarari dagozkion kontuak...

Aurkezpenean azalduko guztia ezin dugu artikuluan labur honetan bildu, baina aipatutako batzuk gutxienez ekartzeko saiatuko gara, labur bada ere:

- Oinarrizko plangintza: Herri Aretoaren kudeaketak plangintza orokor bat eskatzen du, oinarrizko plangintza bat. Inprobisaziotik harago, ikuspegi sakonago eta luzeago bat komeni da kultur jarduerak jarraitutasuna eta koherentzia izan dezaten.
- Kultur mahaia: elkarlana ezinbestekotzat jotzen du kultur teknikariak,



Leitzako Herri Aretoa.

Arg. Miel Mari Elozegi

herrian kulturaren arloan era batean edo bestean aritzen diren eragile ugari dagoelako. Elkarlan horrek hamaika forma har ditzake, eta unean unekoa ere izanen da, baina kultur mahai bat eratzea ere proposatuko du. Eragile guztien lana koordinatzeko balioko du eta, bestalde, herriko urteko programazio orokorra eta orekatua osatzeko bide ezin egokiagoa izanen da.

- Sareak: gaur egun, herrian dagoneko areto egokia izanda, kultur-gintzarekin lotutako zenbait saretan sartzeko aukera dago. Nafarroako Antzerki Sarean, esate baterako, otsailetik aurrera Leitzako bertako kide izanen baita. Horrek aukera emanen du, besteak beste, antzerki programazio aberatsago eta egonkorrago bat izateko, eta dirulaguntza handiagoak lortzeko. Euskal Herri mailako bestelako sare batzuetan ere sartzeko aukera emanen du, gainera, ofizialak nahiz alternatiboak.
- Azpiegituren eta espazioen kudeaketa: kulturaren arloan egiten diren jardueretan espazioa behar izaten

da, logikoa denez, baita azpiegitura ere (mahaiak, aulkiak, hesiak, soina...). Horiek kudeatzea eta horien erabilera koordinatzea izanen da Mirenen egitekoetako bat.

- Eskerak: mesedegarria izanen da aipatutako espazioak eta azpiegiturak erabiltzeko eskerak ongi bideratzea, koordinatuta egotea, formak eta epeak zaintzea, denon mesederako. Hori ere kultur teknikariak bideratuko du, eta aukera eta baliabide egokiak antolatuko dira eskerra horiek guztiak erraz eta eroso bideratzeko. Eskerak telematikoki egiteko aukera ere oso lagungarria izanen da, esate baterako.
- Ohiturak sortu: ohitura batzuk sortu behar dira publikoak irabazteko eta erakartzeko eta publikoaren fidelizazioa lortzeko. Horretarako programazio ez-estatiko bat behar da, baina,aldi berean, oinarrizkoa eta erreferentzia edo aukera egonkor batzuk ere eskainiko dituen: aste-buru edo egun jakinetan zinea izatea, beste egun zehatz batzuetan antzerkia... Eta hori guztia ikasturte osoan zehar. Horrek aukera eman lezake,

gainera, beste aukera batzuk baliatzeko: bazkide bonoak, zinerako edo antzerkirako bonoak... Pixkanaka lantzen joanen diren gauzak dira.

- Araudia: Herri Aretoaren espazioak nolabaiteko arautzea eskatzen du, eta horretarako badago araudi zehatz bat, Udalak onartutakoa. Erabilera-baldintzak, tarifa publikoak, soinu- eta argi-teknikariaren beharra eta bestelako alderdi batzuk aratututa eta jasota daude, eta horien berri ematea eta horiek kudeatzea ere kultur teknikariaren lana izanen da.

Ikusten denez, egiteko garrantzitsuak dauzka Miren kultur teknikari berriak, eta erronka eder bat aurrean. Erronka horretan ez da bakarrik ariko, ondoan izanen baititu Udala bera eta herriko gainerako eragileak eta herritarrak oro har. Udalean teknikariaren lanpostua sortu berria denez, eta denon artean ibilbide eta aukera berriak jorratzen hasi beharko dugunez, denok joan beharko dugu elkarrekin ikasten eta, zalantzarik gabe, Leitzako kultur sorkuntzaren eta kultur jardueraren mesederako izanen da.

Jaiioak heriotza zor



Irudia: Miren Fagoaga. "Dolua. Barnehutsaren kolorea irudietan" erakusketa.

izan dira ia hiru urte Anjel Lertxundi idazlea ezagutu nuela. Medikuntzaren (des)humanizazioaren inguruko jardunaldi batean izan zen, Donostian. Espezialitatea hautatzeko oposiziok prestatzen ari nintzen eta, ikasketari orduak zor banizkion ere, ez nuen hitzordura huts egin. Hitzaldian, Lertxundi sufrimenduz eta heriotzaz mintzatu zen batez ere, ikuspuntu oso pertsonal batekin. Tartean, *Zu* Anjelek berak idatzitako liburua aipatu zuen. Gaur, testu hau idatzi bitartean, gauza onak errepikatu egin behar omen eta, bigarrenkoz, ari naiz aipatu dizuedan liburua irakurtzen.

GAURKO MUNDUAREN MARTXA: GIZARTE PALIATIBOA

Freuden arabera sufrimenduak hiru iturri nagusi ditu: katastrofe naturalak, gorpuzaren gaixotasunak eta besteeki-ko harremanak. Nik zirkunstantzia eko-

nomikoak eta egoera politikoak sufrimenduan duen pisua ere nabarmenduko nuke.

Non kokatzen dugu, ordea, sufrimendua egunerokotasunean? Ekintzaileak goستن dituen gizartea da gurea: egin eta ekin behar da, bai edo bai. Oren gainetik aberastasun materiala bilatzen duen barne-bizitarik gabeko arima garaikideak gara. Fobia diogu minari, ez diogu sufrimenduari lekurik eskaintzen; joko kanpo uzten dugu.

Beldur orokortu hori eremu pertsonal zein sozialean islatzen da, baita politikan ere. "Izan zoriontsu" da egungo mandamentua eta, atzean etengabeko errendimendu bat dagoela asko konturatu gabe, edozein egoera mingarri saihesten ibiltzen gara.

Gogoan dut, Anjelek hitzaldian etorkizuneko belaunaldiek egungoek tuberkulosi hitza entzutean jartzen dugun


aurpegi arrotzarekin begiratuko diotela bihar sufrimenduari. Eta ez zait ideia burugabe bat iruditzen.

Hitz gutxitan, giza kondizioaren haurkortasuna ukatzen tematzen gara eta hori ukatzea giza izaera bera ukatzea litzateke, heriotza tartean.

NI ERE HILKO NAIZ

Jaio ginen, bizi gara, ez dugu deus eskatzen. Baina heriotza da jaio izanaren azken geltokia, ez da bizitzaz aparteko gertakari bat: bizitza bera da. Eta heriotza gerta daiteke edozein adinetan, nonahi eta nolanahi.

Gerta dakioke edonori; gaur, bihar edo hogeit hiru urte barru. Izan daiteke auto-istripu bat, minbizi bat, gaixotasun kroniko bat, suizidio bat edo erailketa matxista bat. Izan daiteke naturala, antinaturala, espero gabea, hausnartua, baldintzatua, amoral edo bidegabekoa.



Irudia: Miren Fagoaga. "Dolua. Barnehutsaren kolorea irudietan" erakusketa.

Ez dut hilko ez den inor ezagutzen; ez beti ere, momentura arte. Zientzia badabil horretan – deliberazio etiko askorik gabe- eskua sartzen: zelulen zahartze prozesua geldiarazten (telomeroak deitzen zaien kromosomako atalak luzatuz); giza kontzientzia makina batean txertatzeko saiakerak badaude jada.

Teknikaren garapenak gure bizitza luzatu dezake, erosoagoa, errazagoa egin dezake. Baina ezin dezake edukiz bete. Ezin dio zentzurik eman. Egungo arazo larrietako bat zera da: punta-puntako teknologia daukagu, baina ez dakigu zehazki zertarako erabili nahi dugun.

Ez al da paradoxikoa, muga biologikoak gaindituz, heriotza bera hiltzeko ahaleginak egitea?

Espero dut hilezkortasuna fikzioan soilik emango den fenomeno bat izatea: jaiok heriotza zor duelako.

HILTZEA, ERRITUALAK ETA ALDAKETAK

Heriotzaren prozesua, eta ez heriotza soilik, ikuspuntu desberdinetatik landu daiteke. Heriotzaren prozesuak hiru etapa ditu: heriotzaren aurrekoa, heriotza bera -hileta aintzat hartuta- eta heriotza ostekoa edo dolua.

Euskal Herriko aldaketa sozial eta kulturalak aztertzeko garaian, komenigarria da egitura sozialean eman diren aldaketak behatzea; hala nola, bizi-itxaropenaren luzapena, bizikidetzaren eredu berriak sortu izana, familia egitura eta neurria, emakumea etxetik kanpoko lan munduan hastea, Eliza katolikoaren influentzia aldaketa, neomodernitatearen postuluak, bizitza erantzukizun eta autonomia gehiagorekin gain hartzea etab. Izan ere, horrek guztiak zuzeneko eragina du heriotzaren prozesuaren fase guztietan.

Zalantzarik gabe, bizi-itxaropena luzatzeak gaixoaldi edo menpekotasun aroaren luzapena dakar, eta, beraz, zaintzeko edo zaindua izateko beharra areagotzen du. Gertakari horrek bizi-kalitate eta bizitzaren zentzuaren inguruko ikuspuntu berri bat garatzera eramaten gaitu eta heriotza prozesuaren inguruko hausnarketa bat bultzatu dezake: heriotzaz zein hileta erritualez.

Eliza katolikoarentzat heriotza bere espezialitateetako bat izan da, bere esku izan du, monopolio ia eksklusibo baten eran, heriotzaren ulerkerak eta kudeaketa soziala gurean. Horregatik, guztiz interesgarria da aztertzea nola heriotzaren gaiarekiko dugun beldurra guztiz erlaxatua dagoen –heine handi batean tradizio erlijiosoak ereindako infernua- rekiko beldurrarekin.

Azken urteetan heriotza prozesua autonomiaz kudeatzeko nahi bat agertu da, erlijio katolikoak ezarritako oinarri edo eredu egokitzuz ala, areago, ordezkatuz. Eta gauzak horrela, geroz eta gehiago dira, hileta antolatze moduan eta dolua diseinatzeko garaian, bere biografiarekin bat datorren errituala prestatu edo eraikitzen dutenak.

ELIZA VS ERRITUAL ZIBILAK

Bat ez da bestea baino hobea. Aukeraketa ona izanen da, baldin eta hilotzaren autobiografiari eta nahiei erantzungo badio. Hala ere, komenigarria da gogoratzea Eliza ez dela hiletak gauzatzeko

baliabide bakarra. Are, hileta erritual laikoak egiteko toki antropologiko georo eta gehiago daude; seguru asko, guztiei etorriko zaizue baten bat gogorra. Herrian ere bada aukera, esaterako Leitzako Herri Aretoa. Eta hor dago jaio berri den Agur Zibilen taldea behar denen babesa emateko ere.

Agur zibilen erritualen egitura, era generikoan, familia eta lagunartean antolatua izan behar du hildakoaren atxikidura lekukotza egiteko eta, era berean, solidaritate eta laguntasun loturak estutuko dituen komunitate bat sortzeko. Hori horrela izan dadin, beharrezkoa da erritualari edukia eta forma ematea. Izan ere, erritualek aurrekariaren zorra premiazkoa dute, tradizio baten ikuspuntua, praktika multzo bat, zenbait errutina; eta, termino antropologiko zein sozialei dagokionean, erritual horiek ez dute jakinak eta errepikakorrek diren mintzaldiekin kontatzen.


Diotenez, era ofizial edo formalean Eibarren, II. Errepublikan garaian, hazi ziren agur zibilak egiten. Hala ere, Tafallan ba omen da plaka bat 1889koa, non herriko irakasle izan zenari, hark hala eskatu bezala, lehen hileta zibila egin zitzaiola adierazten den.

Erritual zibil bat eraikitzekeo garaian, oro har, hurrengo kontuak hartu behar dira aintzat: gauatzeko une egokia aukeratzea, leku bat erabakitzea eta, noski, zendutakoaren nolakotasun biografiko eta egitura sozialarekin bat etorriko den mintzaldiaren edukia sortzea.


Hileta eta ehorzketa erlijiosoaren praktika ez hautatzeak agurra une ezberdinetan egiteko aukera ematen du; adibidez, beilatokian, erraustu aurretik, ehorzketa unean, erraustak zabaltzeko unean, edo hortik denbora batera. Beste aukera bat izan daiteke deus ez egitea, hau da, soilik legeak agintzen duena – hilotza erraustu edo ehortzi-egin eta kito.

Eta zuk, pentsatu al duzu nola nahi-ko zenukeen zurea?

Arantzazu Lizartza Saizar



Irudia: Miren Fagoaga. "Dolua. Barnehutsaren kolorea irudietan" erakusketa.



Irudia: Miren Fagoaga. "Dolua. Barnehutsaren kolorea irudietan" erakusketa.



hezIKTe

Bizi dugun pandemiak hainbat aldaketa ekarri dizkigu bizitzako esparru ezberdinetan. Guri dago-kigun arloan, hezkuntzan hain zuzen ere, aldaketa asko jasan behar izan ditugu eta hauen inguruan hitz egiten hasiz gero, ez genuke zerranda amaituko. Bat aipatzearren eta guri aldaketa gehien ekarri dizkiguna IKTen (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) erabilera handiagotzea izan da.

Egun batetik bestera, saio presentzialak eten zitzaizkigun eta egoerari aurre egiten hasi ginen esku artean genituen baliabide eta jakintzak uztarturik. Inork espero ez zuen egoera batekin topatu ginen, eta une hartan, irakasleek bezalaxe, ikasle zein familiek ere, aurre egin behar izan zioten egoerari.

2020-2021 ikasturtean berriro ere saio presentzialetara itzuli ginen. Eta eskola komunitateko kide guztiok bagenekien

saio presentzialak edozein unetan eten zitezkeela. Hori zela eta, lehenik eta behin, IKTei tarte berezi bat eskaini genien bai irakasle eta baita ikasleen artean ere. Hala ere, familiekin ere formakuntza saio batzuk egitea aurreikusi genuen eta baita burutu ere. Eta hortxe sortu zen, hurrengo lerroetan aurkezteko dizuegun “hezIKTe” proiektua.

Formakuntza ez ezik, familia batzuek gure herrian gailuen beharra ere izan



zezaketela hausnartu zen saio hauetan. Eskolako familia askok ez dutela gailu informatikoak erosteko baliabiderik ikusi genuen.

Hori dela eta, proiektu honen bidez, prozesu parte-hartzaile bat martxan jarri eta gero, behar gehien dituzten familiak informatikako gailuez hornitu nahi dira pandemia honek eragin duen arrakala informatikoari erantzuteko. Horretaz gain, familientzat egokituriko web



orrialde bat ere sortu genuen zeina eskolako web orrialdean topa daitekeen. Bertan googleko tresna ezberdinak erabiltzeko gidak zintzilikatu dira. Laburbilduz, proiektu honen bidez honako helburu nagusi hauei erantzuten ahaleginduko gara:

- Herritarren artean dauden gailu informatiko (mugikorrak, ordenagailuak, tabletak,...) zaharrak konpondu eta beharra duten familiei eskaintzea.
- Familiak formatzea IKT saioen bidez.
- Ikasleei IKT erabilera egokia erakustea eta erabilera okerrak izan ditzakeen ondorioak ezagutaraztea.
- Ikasleek gure herrian dauden beharrak aztertzea eta horiei erantzuteko bideak uztartzea.
- Herritarrengana iristeko dauden komunikazio bideak erabiliz proiektuaren difusioa egitea ahalik eta oihartzunik handiena izan dezan.
- Gailu teknologikoen erabilera egokia bultzatzea eta beraien ezagutzen bidez bestelako pertsoneri laguntzeko gai direla ikustea.
- Sortzen dugun zaborraren inguruko gogoeta egitea eta kutsadura gutxitzeko ekintza ezberdinak martxan jartzeko gai izatea.
- Erakunde ezberdinen arteko elkarlan eta komunikazioaren inguruko gogoeta egitea, talde lanaren eta auzolanaren eraginkortasuna baloratzeko.

Herriari zerbitzu bat ematea da asmoa, eta zerbitzu hori eman ahal izateko lanean jardungo dugu. Ikaskuntza modalitate honen bidez ikasleek zerbitzu bat ematen ikasteaz gain elkarlanean arituz ikaskuntza sakona izanen dute aspektu ezberdinetan.

LH 6. mailako ikasleentzat prestatutako proiektu bat da. Beraiek izanen dira ikaskuntza prozesuaren arduradunak eta beraiek arduratuko dira informazioaren zabalkuntzaz (irratia, kartelak, azoka,...) eta baita ondoren gailuak biltzeaz ere. Azkenik, gailuen banaketa ere ikasleek bideratuko dute.

Gailuen konponketa Tolosaldea BHI institutuko ikasleek egingen dute eta berai ikustera joateko irteera bat ere antolatzea aurreikusten da.

Honetaz gain, gailu informatikoen erabilera zuzenaren inguruko saioak ere jasoko dituzte horrek duen garrantziaz jabetu daitezten.

Herrian eta eskolako familien artean dugun beste hutsuneetako bat gailu hauen gaineko erabileraren ezjakintasuna da. Horrela, proiektuaren beste ardatzetako bat familiak IKT erabileraren inguruan trebatzea izanen da. Atal hau irakasle taldearen eta guraso elkarrearen elkarlanetik sortuko bada ere, ikasleek beraiek ere formakuntza hauetan parte hartzeko aukera izanen dute, hala nahi izanez gero.

**Erleta eskolako
zuzendaritza taldea**

